



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

GAUR EGUNGO MUSIKA SAIOAK HAUR

HEZKUNTZAN: ARRIGORRIAGAKO

ESKOLAKO BEHAKETA

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Zuluaga Camino, Nerea.

ZUZENDARIA: Barrena De La Rúa, Nerea.

2019/2020

Laburpena

Ikerketa honen helburu nagusia, gaur egungo musika saioen errealitatearen inguruko datuak edo informazioa jasotzea izan da, hain zuzen ere, musika hezkuntzari begira. Egindako azterketa Arrigorriaga eskolako ikasgela zehatz batean egin da Practicum IIIaren egonladiaren tartean. Gure marko teorikoan, musika hezkuntzaren inguruko hainbat atal kontuan hartzen dira, hala nola, musika hezkuntzaren hastapenak eta garrantzia, musika hizkuntza, sozializazio eta adierazpen gisa, musikaren ikaskuntzarako prozesu kognitiboak etab beste batzuen artean. Behin marko teorikoa osatua, azterketaren datuak jaso ahal izateko behaketa ezinbestekoa izan da, behaketa sistematikoa. Aipatutakoarekin, musika hezkuntzaren errealitatea behatzeaz gain, etorkizunean beharrezko aldaketak edo hobekuntzak egiteko lagungarria izan daiteke, bai haurrei zein irakasleei begira.

Hitz gakoak: haur hezkuntza, musika hezkuntza, musika jarduerak, gaitasunak eta behaketa.

The main objective of this study was to gather data or information about the reality of current music sessions, in fact, with a view to music education. The study was carried out in a specific classroom at the Arrigorriaga school during Practicum III. In our theoretical framework, various sections on music education are considered, such as the beginnings and importance of music education, music as language, socialization and expression, cognitive processes for musical learning, among others. Once the theoretical framework was completed, systematic observation was essential in order to collect the study data. In addition to observing the reality of music education, it can help make necessary changes or improvements in the future, for both children and teachers.

Keywords: early childhood education, music education, music activities, skills and observation.

El objetivo principal de este estudio fue reunir datos o información sobre la realidad de las sesiones de música en educación infantil, de hecho, con miras a la educación musical. El estudio se realizó en un aula específica de la escuela Arrigorriaga durante el Practicum III. En nuestro marco teórico, se consideran varias secciones sobre educación musical, como los comienzos y la importancia de la educación musical, la música como lenguaje, socialización y expresión, procesos cognitivos para el aprendizaje musical, entre otros. Una vez que se completó el marco teórico, la observación sistemática, fue esencial para poder recopilar los datos del estudio. Además de observar la realidad de la educación

musical, puede ayudar a realizar los cambios o mejoras necesarios en el futuro, tanto para los niños como para los maestros.

Palabras clave: educación infantil, educación musical, actividades musicales, habilidades y observación.

Aurkibidea

Laburpena	2
1. Sarrera	5
2. Justifikazioa	6
3. Marko teorikoa	7
3.1 Musika hezkuntzaren hastapenak	7
3.2 Musika hezkuntzaren garrantzia	8
3.2.1 Musika hizkuntza gisa	9
3.2.2 Musika adierazpen eta sozializazio gisa	10
3.3 Musikaren ikaskuntzarako prozesu kognitiboak	10
3.3.1 Arreta eta motibazioa	10
3.3.2 Irudikapen eta memoria sistemak	11
3.3.3 Pertzepzio eta adierazpena	11
3.4 Musikaren garapena eta ikasteko estrategia didaktikoak	13
3.5 Musika praktikaren ekarpenak haurraren garapenean	16
3.6 Testuinguru profesionala, irakasleen prestakuntza	18
3.7 Musika hezkuntza antolatzeke bloke musikalak	19
4. Helburuak	20
5. Metodoa	22
5.1 Ikastetxearen testuingurua	24
5.2 Ikasgelaren testuingurua	24
6. Emaidzak	26
6.1 Jardueren behaketa	26
6.2 Haurren parte-hartzea	28
7. Ondorioak	30
8. Hobekuntza proposamenak	34
9. Erreferentziak	35
10. Eranskinak	40
10.1 Eranskina: behaketa fitxak	40
10.2 Eranskina: taula	70

1. Sarrera

Gradu Amaierako Lana egiteko haur hezkuntzako musika hezkuntzan oinarritzea erabaki dugu, kasu honetan, hezkuntzaren testuinguruan gaudelarik. Horretarako, musika saioen behaketa sistematikoa egin da, hain zuzen ere, gaur egungo musika hezkuntzaren egoerari beste errealitate bat gehituz, behaketaren ekarpena eginez. Hortik abiatuta eta hori oinarri bezala edukita, beste hainbat azpigai ere kontuan hartu dira; parte hartzea, gaitasunak, jarduerak, egokitzapen maila etab.

Proiektu honen behaketa aurrera eraman ahal izateko, behaketa fitxa bat sortu da, non aurreko lerroetan aipatutako azpigaiak batzen diren. Beraz, behaketa fitxa hiru atal ezberdinetan banatuta dago, laburpena, haurren parte-hartzea eta jardueren bilketa. Behaketa fitxa astero bete izan da musika saio bakoitzean.

Bertako informazioa ataletan banatuta dago, hala nola, musika hezkuntzaren hastapenak, garrantzia, musika hizkuntza, adierazpen eta sozializazio gisa beste batzuen artean. Proiektu honen helburua, gaur egungo musika saioen errealitatea behatzea eta aztertzea da, hortaz, lan honen metodoa behaketa sistematikoan oinarritu da. Honekin lotura eginez, behaketa sistematiko horretatik lortutako emaitzak eta ondorioak jaso dira.

Azken finean, gaur egungo hezkuntza ereduaren alderdi baten behaketa egiteak gure ikuspuntua edo begirada zabaltzera eramaten gaitu. Horrela, irakaskuntzako testuinguruan ematen den jokaerarekin bukatuz gero, eguneroko erronkei aurre egiteko gaitasunak garatuko dira. Horretaz gain, aipatutako ikuspuntu edo begirada zabaltzea ezinbestekoa da, eman ahal diren aldaketa berrien alde egiteko eta hezkuntza munduan gutxietsita dauden ikasgaiei presentzia edo garrantzi handiagoa emateko.

Sarrerarekin bukatzeko eskerrak eman nahi nizkioke Arrigorriagako eskolako musika irakasleari, Arrigorriagako eskolari eta bertako irakasle zein haurrei.

2. Justifikazioa

Lan hau egitearen arrazoiak azalduz, lehenik eta behin esan beharra dago, egindako behaketa Arrigorriagako eskola publikoan aurrera eraman dela haur hezkuntzako bigarren zikloan, hain zuzen ere, lau urteko gelan egin da eta gela 22 hurrez osatuta dago.

Alderdi pertsonalari erreparatuz gero, behaketa hau burutzeraz eraman nauen arrazoi nagusia, Arrigorriagako eskolan musika saioak behatzeko zoria edo aukera izatea izan da, batez ere, saio hauek eduki ez gero behaketa ezin izango zen aurrera eraman. Behaketa horrek, haur hezkuntzako musika saioetan honek duen presentzia nolakoa den ikustera eraman nau. Baita, adierazpena eta komunikazioa dramatizazioaren bidezko minorra ere burutzen ari naizenez eta bertan musikaren presentzia dagoenez, hau oso lagungarria izan daiteke gelan egindako jarduerak behatzeko, hain zuzen ere, dramatizazio eta musikaren artean lotura dagoelako.

Berriz alderdi akademikoari dagokionez, musikak haur hezkuntzan duen garrantzia kontuan hartzea ezinbestekoa da, haurren garapen kognitibo, psikologiko, sortzaile eta intelektualean laguntzen duelako. Aipatutakoaz gain, oroimen, arreta eta kontzentrazioaren ahalmena handigarria egiten du, horrela, ezagutza ezberdinak elkarrekin erlazionatzeko. Horrekin batera, ikaskuntza musikalak gizarteratzen laguntzen du eta lankidetzeta, espiritu kritikoa eta errespetua bultzatzen ditu. Musikak bizitzako etapa guztietan laguntzen du eta, zorionez, gaur egun hezkuntza komunitateak argi dauka musikak ikasleen garapen globalean betetzen duen funtsezko zeregina dela. Arrazoi guzti hauengatik, uste dut musikaren presentzia haur hezkuntzan oso garrantzitsua dela haren tratamendua behatzea ere.

Aurreko lerroetan idatzitakoari erreferentzia eginez, musika saioen behaketei esker, haurren irakaskuntza-ikaskuntza prozesua bideratzen laguntzen du eduki ezberdinak eskuratzen diren bitartean. Haurrek, esan bezala, alderdi ezberdinetan garapena jasaten dute; fisikoa, motorra, emozionala, afektiboa, soziala eta kognitiboa, eta hauen bidez hezkuntzako helburuak lortu edo garatzen dituzte. Horregatik, behaketa sistematikoaren bidez, haurren garapena edo edukiak behatzeko ezinbesteko tresna da.

3. Marko teorikoa

Musika hezkuntzaren atal nagusia da, haurraren ariman lehen unetik sartu eta edertasun eta bertutearekin harremanetan jartzen duelako.

(Platón, Morenok aipatua, 1988)

Atal honetan, musika hezkuntzaren oinarritzko autore eta teoriak jasotzen dira, hain zuzen ere, musika hezkuntzaren hastapenak, musika hezkuntzaren garrantzia, musikaren ikaskuntzarako prozesu kognitiboak, musikaren garapena eta ikasteko estrategia didaktikoak, musika praktikaren ekarpenak haurraren garapenean eta testuinguru profesionala, hau da, irakasleen prestakuntza.

3.1 Musika hezkuntzaren hastapenak

Musika hezkuntzari hasiera emateko, Pascualen (2006) ideiak kontuan hartuko dira, hain zuzen ere, honen ekarpenetan oinarrituz, kontuan izanda Pilar Pascual autorearen ekarpenak gaur egun erreferentea direla musika hezkuntzan. Lehenik eta behin esan beharra dago, antzinaroan, musika balio handiko elementutzat hartu zela. Antzinako Greziak musika hezkuntza elementu garrantzitsu gisa kontsideratu zuen eta horregatik, hezkuntza sisteman musika integratzea erabaki zuten.

Denboran atzera eginez gero, García (2013) Aristoteles IV. mendeko filosofo Grekoaren ideian oinarrituta, haur hezkuntzako etapa bi eremuetan bereizi zuen, alde batetik, bi urtetik bost urte bitartekoa eta beste aldetik, bost urtetik zazpi urte artekoa. Horretaz gain, musika hezkuntzaren balioari buruz aritu zen eta bere ustetan, ezagutza guztiak zentzumenetatik zetozen. Hezkuntza prozesua osatzen duten lehenengo faseak (bizitza fisikoa, senak eta arrazoia), nolabait gaur egungo haur hezkuntzari dagokiona, musika praktika atsegina eta esperimendazio metodo gisa ulertu zen.

Erdi Aroko amaieran, musika abesti edo organoa jotzearekin batera irakasten zen, hain zuzen ere, monasterio eta elizetan, musikak ekintza erlijiosoetan parte hartuz. Honek esan nahi du, musikak erlijioan garrantzi handiagoa zuela, hezkuntzan baino. XVIII mendetik aurrera, musika elizaren edo gortearen ondare izatera utzi zion eta arte herrikoi ezaguna bihurtu zen. Rousseau bezain garrantzitsuak diren irudiak agertzen hasten dira, musika hizkuntza unibertsaltzat hartzen duena. Horrekin batera, musikaren teoriaren garrantzia zabaldu zen eta neska-mutil gazteek kanta errazak ikasten hasi ziren. Beste pedagogo batzuk, Froebel, Decroly, Montessori eta Agazzi ahizpak izan ziren musika hezkuntzak haurtzaroen garrantzia aitortu zutenak. XIX. eta XX. mende bukaeran musikaren aurrerapen edo berrikuntza hadienak eman ziren Eskola Berria sortzearekin batera.

Hurrengo lerroetan honen inguruko informazio gehiago jasota dago, lerro hauetako informazioa gehiago sakonduz (Caballero; Cocera; Gómez eta Puentes, 2010).

XX. mendean, *Eskola Berriaren* indarrarekin batera, haur hezkuntzak eta haurrek, indar gehiago hartzen joan eta hauen beharrak asetzeko gizartean erantzunak bilatzen hasi ziren. Asko dira, bizitzako lehenengo urteetan musikaren garrantzia baieztatzen duten korrontek eta ikerketak. Dagoeneko XIX. eta XX. mendearen hasieran, Eskola Berriaren ustez musikak gizakia bere osotasunean barneratu behar du. Halaber, ikusmolde eta mugimendu berritzaileak jaio ziren eta horietakoen artean hezkuntzako pedagogoak aurki daitezke, hala nola, Montessori, Decroly, Agazzi ahizpak etab etapa honetan musikak duen garrantziari erreferentzia egiten diotenak. Modu berean, XX. mendeko beste hainbat proposamen pedagogiko egon ziren; Kodály, Orff, Willems, Dalcroze etab. Aipatutako pedagogoak musika hezkuntzak eskolan zuen balioa eta garrantzia eman edo nabarmendu ziotenak izan ziren (Díaz, 2005 eta Pascual, 2011).

3.2 Musika hezkuntzaren garrantzia

Haur hezkuntza garapen pertsonala eta soziala garatzen dituen prozesua da. Horren bitartez, nortasuna eta harreman gaitasunak garatu egiten dira (Medina, 1996). Ezinbestekoa da haur hezkuntzari buruzko kontzeptua heziketa ideologia batean oinarritzea, prestakuntza jaso duten profesioaletan eta hezkuntza sistema koherentea osatuz (Bernal Vázquez, 1999).

Hezkuntza sistemaren 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa kontuan hartuz, haur hezkuntzako xede edo helburu nagusienetarikoa bat, haurren erabateko garapena bultzatzea da, alegia. Esan beharra dago, gaur egun haur hezkuntzan, haurra da haren ikaskuntza guztien protagonista eta ardatza. Gainera, beste alderdi asko ere kontuan hartzen dira protagonismo horrekin batera: afektua, gaitasunak, harreman sozialak, alderdi biologikoak... (Martínez, 2016).

Aipatzeko da, musika ez dela adierazpen artistikoa bakarrik, pertsonen garapena sustatzeko erabil daitekeen baliabide pedagogikoa baizik. Capravren esanetan (2003), musikak, hezkuntza aintzat hartzen ahalbidetzen du, gizakiaren garapen integralaren zutabeetako bat izango balitz bezala. Honekin esan nahi duena da, haurtzarotik aurrera pertsonen garapena sustatzeko erabili daitekeen baliabidea dela. Baita zentzu horretan ere, hezkuntza artistikoak proiektatzen dituen onurak nabariak dira baliabide pedagogiko gisa, prozesu kognitiboak eta trebetasun orokorrak kontuan hartuz.

Tafurik (2000) onartzen duen bezala, azken ikerketen ondoren, haurraren hasierako faseen garapenean musika estimuluen erantzunak zehaztu ahal izan dira. Hau energia bezala barneratzen da, batez ere, gorputz mugimendu edo jolasaren bitartez. Haurrak oso txikiak direnetik musikalki garatzen dira, hau da, sentitu, adierazi eta interpretatzen dute.

Aipatutako informazioarekin lotura eginez, haurrak jaio baino lehen musikarekin edo musika soinuekin harremanetan jartzen dira; ingurunea, ama edo aitarengandik, beste soinu askoren artean. Honek esan nahi du, haurra garatzen doan ingurunean soinuak ugariak eta konplexua direla, beraz, musikaren hezkuntza haurra jaio aurretik ere has daiteke (Pascual, 2011). Ideia honekin jarraituz, haurraren belarria lehenengo organo sentsoriala da umetokiaren barruan garatzen dena, hau da, fetuak entzun, soinuarekin erreakzionatu eta hortik ikasten du. Haurrak honen bitartez, amarengandik (bihotz taupadak) eta kanpoko soinuen (zarata, musika...) bereizkeria egiteko gaitasuna garatzen doa.

3.2.1 Musika hizkuntza gisa

Ruizen (2011) ideiak erreferentziatzen hartuta, esan dezakegu hizkuntzen aniztasuna oso aberatsa dela (idatzizkoa, ahozkoa, artistikoa, teknikoa, etab.), eta hizkuntza hauek helburu komun bat dute, hala nola, ideiak edo sentimenduak adieraztea edo komunikatzea. Ildo beretik jarraituz, musika hizkuntza artistikoa eta adierazkorra da, hau da, esanahi bat baino gehiago ditu. Hizkuntza bezala, inpresioak, sentimenduak eta gogo-aldarteak adierazi ahal dira, musika interpretazio eta inprobisazioaren bidez komunikatuz.

Hizkuntzaz hitz egiterako orduan, ahozko, idatzizko, ikusizko edo plastikozko irudikapen guztietan, komunikazioa eta soinuen errepresentazioa irakurketa-idazketaren abiapuntuak dira. Ahozko adierazpena haurtzaroaren hezkuntzako iturri nagusi gisa ahaztu gabe, musikak hiztegiaren hedapenean, ahoskeran, soinuen entzutean, ahotsaren tonu desberdinetan, ahoaren muskuluen lanketan, besteak beste asko laguntzen du. Baita, intonazioa ere, haurrak bere hizkuntza modu oso batean lantzeko behar duen beste atal bat da eta hori praktikan jartzeko, musikaren hezkuntza beharrezkoa da (Riesco Jimeno, 2009). Hernández, Hernández eta De Moyaren (2011) hitzetan, musikak haurren arteko komunikazioari mesede egiten dio, baita funtzio psikologikoen garapenean ere, hau da, arreta, memoria eta ikusmen eta entzumen pertzepzioan.

Riesco Jimenoren arabera (2009), gizakiaren lehen adierazpen komunikatiboak irudiaren eta soinuaren bidez izan ziren eta bi iturri hauen bidez haurra komunikatzen hasten da. Horregatik musika, zalantzarik gabe, denbora luzez memorian iraun behar duen informazioa integratzeko bitartekari eraginkorrena da. Beraz, ulertezina da gaur egungo

musika hezkuntzak haurtzaroan eman behar zaion garrantzia edo balioa ez izatea. Irakasle gutxi dira, musika-hezkuntza behar bezala erabiltzen dutenak, haurrek eduki desberdinak eskuratzeko.

3.2.2 Musika adierazpen eta sozializazio gisa

Musika hizkuntza gisa aipatzen den bezala, ideiak eta sentimenduak komunikatzeko, adierazteko edo ikasteko baliabide bezala har daiteke, bai bere adierazpen indibidualean bai taldekoan. Musika, gizakiaren adierazgarria da eta kultura guztietan presente dago, beraz, giza taldeen arteko sozializazio, adierazpen eta komunikazio faktorea da. Aldi berean, hezkuntza integrala haurraren potentzialtasun guztiak garatzera bideratuta dagoela baieztatzean, ezin dugu musika heziketaren formazioa alde batera utzi, gaitasun kognitibo eta psikomotoreak garatzeaz gain, gaitasun afektibo eta sozialak ere garatzen dira (Cremades et al, 2017).

Haurrak bere harreman-eremua zabaltzen duen heinean, musikak paper garrantzitsua du bere sozializazio prozesuan parte hartuz, hala nola, kantuan, dantzan, gorputzaren adierazpenean, entzumenean eta abar. Musikaren bidez, haurrak ingurune fisiko eta sozialarekin, objektu fisiko eta kulturekin eta bere inguruko pertsona eta talde sozialekin harremanak ezarri, halaber, gizartearen portaera gidatzen duten arauak bereganatzen ditu. Lehmanek (1993) eskolan musika hezkuntza justifikatzen duten hainbat arrazoi defendatu zituen, eta horien artean hauek nabarmendu daitezke:

- Kultura transmititzeko bide bat da, bai gure izaera ulertzearen aldekoa, bai beste kultura batzuen aldekoa.
- Gizakiaren potentzialtasunetako bat da eta horrek ezinbestekoa egiten du bere garapena.
- Norberaren adierazpenerako eta sormenerako modua da.
- Gogobetetasuna ematen du.

3.3 Musikaren ikaskuntzarako prozesu kognitiboak

Musikaren ikaskuntza prozesua kognitiboa eta eraikitzailea da, non pertzepzioa, irudimena, memoria, arreta, emozioak eta motibazioa bezalako prozesu multzoak parte hartzen duten, hauek, adimen musikala garatzeko oinarriak dira (Cremades et al, 2017).

3.3.1 Arreta eta motibazioa

Arreta, jarduera jakin batera orientatzeko eta informazio sentsoriala hautatzeko gaitasuna da. Haurra bere arreta bideratzeko, ikaskuntzaren edukiak, jarduerak eta lantzen

dituen materialak motibazioa eragin behar diote, beraz, honekin argi eta garbi ikus dezakegu arreta eta motibazioa oso lotuta daudela (Cremades et al, 2017).

Ikuspegi soziokognitibo batetik, motibazioa aldagai pertsonalen eta testuinguruaren elkarrekiko eragina da; hau da, irakasleen hezkuntza ekintzak; materialak, ikasleekin harremanatzeko modua, ebaluazioak eta ikasteko egoerek eragin handia dute ikasleen interesetan (Bandura, 1986).

3.3.2 Irudikapen eta memoria sistemak

Memoria informazioa grabatu, gorde eta berreskuratzeko gaitasuna da. Zerbait memorian gorde edo egon dadin, informazioak bere arrastoa utzi behar du, hau da, irudi edo irudikapen bat eraikitzea. Prozesu honetan arreta eta motibazioa ere parte hartzen dute, interesa beharrezkoa delako (Cremades et al, 2017).

Brunerek (2001), hiru maila edo irudikapen-sistema deskribatzen ditu: enaktiboa, ikonikoa eta sinbolikoa. Haurrak errepresentazio forma horien maiztasun progresiboa eskuratzen du, hala eta guztiz ere, etengabe ematen diren arren ez dira zertan ordezkatu edo desagertuko. Hauen deskripzioari dagokionez, errepresentazio enaktiboa errepresentazio ekintza modua da, kasu honetan, erantzun motor baten bidez ematen dena, adibidez, kanpai batzuk astintzen ditudan zerbait dira, danborra jotzen dudana zerbait da, etab. Aurrekoarekin alderatuta errepresentazio ikonikoak lorpen garrantzitsua suposatzen du. Haurra gai da objektuen gainean jarduteko irudikatze beharrik gabe, hots, ekintza irudi batekin ordezkatzeko. Errepresentazio sinbolikoa berriz, objektuak eta gertaerak ezaugarri formalen bidez irudikatzean datza, irudikatutako gauzarekin zerikusirik ez duen ikur arbitrario baten bidez.

Errepresentazio enaktibo eta ikonikoei esker, haurrak musikarengana hurbiltzeko modua da, ekintzaren bidez, jolasean, abesten, entzuten, mugitzen, adierazten etab. Hori dela eta, irudiak sortu egiten ditu ikur edo sinboloetan sartu aurretik.

3.3.3 Pertzepzio eta adierazpena

Gertrudix anaiantzat (2011), musika pertzepzioa soinu munduaren aurrean kontzientzia dakar, hau da, entzuketa aktiboa aurrera eramatean. Inguruko musika elementuak atzeman daitezke esplorazio sensorial, ludiko, espontaneo eta sistematikoan oinarrituta, baina progresiboki aktiboa eta autonomia izan behar da.

Adierazpen musikalaren definizio gisa, Arguedasek (2004) honako hau proposatu du, espresioa soinuen bitartez emozioak komunikatzeko eta transmititzeko balio du. Haur hezkuntza sentimendu edo emozio horiek hainbat baliabideren bidez adieraz daiteke eta Ruizen (2011) arabera honako hauek dira:

Ahotsa. Tresna adierazkor eta komunikatibo eskuragarriena da. Abestea, musika eta hizkuntzaren arteko fusioa da eta honek asko laguntzen du adierazpen eta komunikazioan. Abestiei keinuak gehitzerakoan, gaitasun ezberdinak garatu daitezke, hala nola, gorputzaren adierazpena, sentikortasuna eta ekimena. Haur hezkuntzan, abestien interpretazioa bide garrantzitsua da haurrek soinu ekoizle gisa ezagutzeko.

Gorputza musika tresna gisa. Gorputzaren perkusio lanak, soinuak ulertzen eta baloratzen lagundu dezake eta jarduera ona edo lagungarria izan daiteke musika tresnak jotzen hasi aurretik.

Musika tresnak. Hauen erabilera, besteak beste, koordinazioa, entzumena eta egokitze gaitasuna garatzen laguntzen du, guztiak elkarrekin lantzen diren bitartean. Gainera, Hernández, Hernández eta De Moyak azaldu dute (2011), bost eta zortzi urte bitartean, haurrak interes manipulatioa eta sensoriala esploratzeko interesa erakusten duela, nahiz eta bere adierazkortasun pertsonala garapenaren motor nagusia izan. Beraz, musika tresnekin esperimentatzeko aukerak eskeintzerakoan ikasleentzako jarduera erakargarria eta motibatzailea izango da.

Mugimendua eta dantza. Haurrak oso txikiak direnetik, musika entzuten dutenean espontaneoki mugitzeko beharra sentitzen dute. Hortaz, mugimendu hauek aprobetxatu behar dira espazioa ezagutzeko eta musikak iradokitzen duena bere gorputzekin adierazteko. Dantza baliabide garrantzitsuenetako bat da gaitasunak garatzeko, hain zuzen ere, koordinazioa, orientazioa espazioan, norberaren gorputzaren ezagutza, adierazpena mugimenduaren eta memoriaren bidez eta besteekin harremanak izateko gaitasuna. Mugimenduari esker, haurrak bere gorputzeko atal desberdinen esperimentatzeko aukerak ditu, espazioa esploratu eta deskubritzen duen bitartean (Cremades et al, 2017).

Pashmanen iritziz (2014), musikari erantzunez garatzen den gorputz mugimendua dantzatzat hartzen da. Haur hezkuntzan haurrak erraz egiten dituen mugimendu naturalekin lan egin behar da. Pixkanaka-pixkanaka, irakasleak taldearen ezaugarrietara egokitutako koreografia errazak sartuko ditu. Horretaz gain, Mejias-en aipatutakoaren arabera (2009), oinarrizko dantza, hau da, forma sinpleak dituen elementu garrantzitsuenak ditu: erritmo,

sentsazio eta sentimenduen adierazpena. Funtsezkoa da haurrari espazioan mugimendu elementuak eta denbora eskaintzea, horrela, musikaren bidez gorputz adierazpena garatuko du. Haur hezkuntzan aritzeko dantzak forma soil bat izan behar du, adibidez:

- Abestia: A-B-A-B-A-B estruktura jarraituz.
- Soinuaren altuera diskriminatzeko jolasak.
- Soinu intentsitatea diskriminatzeko jolasak.

3.4 Musikaren garapena eta ikasteko estrategia didaktikoak

Zentzu honetan, hezkuntza artistikoa espazio garrantzitsuen sorrera gisa bezala proiektatu daiteke, soinu, erritmo eta interpretazioaren bidez, modu berean, gizabanako bakoitzaren ikaskuntza prozesuak hobetze aldera (Campbell, 2001). Gainera, musika sentimenduak, umoreak eta giroak adierazteko gai den hizkuntza gisa kontsideratzen da, beste hainbat ezaugarri kontuan hartuz, “ederra, lasaia, zirrargarria, umoretsua, tentsiboa, satirikoa, jakingarria, dotorea etab.” Honen bitartez, haurren irudimenaz eta sormenaz balituz, baliabide ezberdinak bereganatzen dituzte arazoan ebazpenetan eta harremanetan, bai bakoitzaren buruarekin, bai ingurugiroarekin eta bai besteekin (Maya, 2007).

Juntunen esanetan (2004), Dalcrozeren metodoan oinarrituta, musikak duen eraginari aurre eginez, bere eginkizuna oso garrantzitsua dela nabarmentzen du, hezkuntza orokorraren baitan gizakien hainbat desioi erantzuten baitie, onura hauek aipatuz. Lehen haurtzaroan musikaren heziketari dagokionez, nerbio edo muskulu sistema oso lagungarria izaten da haurren mugimendu askeak sustatu ahal izateko.

Adierazpen musikalaren garapenaren hasierako urteetan gizakiak erritmoaren elementu gehiago ditu melodikoak baino (Hemsey de Gainza, 1964), hau gertatzen da bulkada naturalei esker; manipulatu, ukitu, behatu... Hauek haurrari erantzun bat ematen diote komunikazio bidea bilakatzen diren bitartean, erritmoek kontrol motor elementala eta koordinazio sentiomoteorea garatzen dutelako (Lorete, 1980).

Lehen haurtzaroa alde batera utzita, hiru eta lau urte bitarteko haurrek garatuta duten kontrol motorraren bitartez, korrika edo salto egiteko aukera dute. Aurreko lerroetan aipatutakoarekin batera, ariketa erritmikoak imitazioaren bidez egiteko gaitasuna garatzen doaz. Lau urterekin abestiak antzeztu, mugimendu zehatzagoak keinu eta mimikaren bitartez lagundutakoak egiten dituzte eta abesti dramatizatuarekin hasten dira. Baita, haurrak ahots eta motor kontrol handiagoa ere erakusten du, eta hala gai da bere gorputz sentimenduak eta emozioak adierazteko. Aipatutakoarekin jarraituz, haurrak erritmo

azkarrak eta erritmo geldoak bereizteko gaitasuna du, baina, intentsitatea abiadurarekin nahasten ditu (Pascual, 2011).

Haurrek bost urte inguru izaterakoan, bilakaera handia ematen da musikaren garapenean, hain zuzen ere, gorputzaren erritmoaren kontrolean. Haurrek motor garapena oso garatua dutenez, mugimenduak koordinatzeko eta musikaren erritmoarekin sinkronizatzeko ahalmena dute, hau da, musikarekin batera erritmoa oin edo eskuekin eramateko gaitasuna. Horretaz gain, haur batzuk abesti txikiak edo doinu motzak sortzeko gai dira, musikarekiko interesa eta gustuekin batera. Egoera hauek ematen direnean, adin honetako haurrek arreta eta kontzentrazio maila handiagoa erakusten dutelako izaten da (Pascual, 2011; LaCárcel, 1995 eta Sarget, 2003). Azkenik, haurrek sei urterekin, euren ahotsa kudeatzeko gaitasuna eta gorputzaren erritmoa entzumenarekin sinkronizatzeko ahalmena garatzen joaten dira (Martenet, 1993).

Ikusi izan ahal dugun moduan, musika, haurrak bere bizitzako lehen urteetan jasotzen dituen hezkuntzako arlo guztietan murgilduta dago. Baita, haur hezkuntzan diharduten arlo zehatz guztietan ere (Riesco Jimenok, 2009):

- Norberaren ezagutzan presente dago. Haur batek aurkitu behar duen lehenengo gauza bere gorputza, bere atalak, bere mugimenduak eta bere soinuk dira. Gorputzarekin sortutako soinuen edo hotsen bidez haurra bere gorputzeko atalekin esperimentatzen hasiko da.
- Bere autonomiaren garapenean presente dago. Haurrek abestu, dantzatu, tresnak jo, erritmoak intepretatu etab bakarrik egin behar dituzten jarduerak dira.
- Ingurunearen ezagutzan presente dago.

Ikasketa estrategikoei erreparatuz, Pascualek (2006) bere liburuan *Didáctica de la música infantil* aipatzen duen moduan, alde batetik, Carl Off (1895-1982) Alemaniar konpositorea bere hezkuntza ikuspegiarekin adierazi zuen bezala, haurrak bere prozesuan parte hartu, interpretatu eta sortu behar du, bere gorputza musika tresna nagusi gisa aitortuta. Beste alde batetik, Zoltan Kodalyk (1882-1967) musikagile Hungariarrak estimulazio sentsoriala bultzatu zuen hasierako etapetan, etorkizuneko garapen musikala haren mende dagoelako, zentzu horretan musika haurraren kulturarekin biziki lotuta egon behar zen. Kulturari erreferentzia eginez, Carrilek (1986) uste zuen musika bera zela tradizio edo kultura osatzen zuena. Horretaz gain, musika adierazteko bide bat zela argi eta garbi utzi zuen, bizitzan zehar izandako esperientziak eta istorioak gaur egungo gizartea osatzen dutela ondorioztatuz. Egile honek ahotsa lehen tresna gisa nabarmendu zuen, "abestea" musika praktikaren oinarria delako (Cartón eta Gallardo, 1993).

Edgar Willemsek (1890-1978) musika hezkuntzarako erabilitako metodoa psikologia eta abestietan oinarritzen da, entzumenaren garapena ahalbidetzen duena. Entzuketa musikala da metodo honen barruan dagoen oinarritzko elementu bat, ez bakarrik musika ikasteko, baizik eta gizabanakoa eratzeko, entzumena honela sailkatuz: sentsoriala, afektiboa eta mentala (Pascual, 2006).

Shinichi Suzuki (1898-1998) pedagogo eta musikari Japoniarra izan zen eta musika-adimena garatuz, ikasketa instrumentala lortzeko metodo bat eraiki zuen. Metodo horren xedea, haurrari nahiko denbora gutxian interpretazio maila ona lortzeko aukera eskaintzea da. Modu honetan, ez du musika prestakuntza profesionala bilatzen, baizik eta, jende gehiago musika estimatzea eta horrekin gozatzea (Campbell, 2001).

Musika-pedagogia aktiboen inguruan, Díaz eta Giráldezen arabera (2007) pedagogia guztiek ezaugarri esanguratsuak partekatzen dituzte eta ikastetxeek musika irakaskuntzari begira, beharrezko denbora eskaini behar dute ikasleen musika gaitasunak garatzeko. Era berean, irakasleek jaso beharreko prestakuntza osoa eta iraunkorra izan beharko litzateke. Hori dela eta, aipatutako autoreek nabarmentzen duten moduan, beharrezkoa da sistema orokor bat ezartzea printzipio hauek betetzen dituenak:

- "Sentitu ikasi aurretik". Ezinbestekoa da une oro ikasleen bilakaera naturala, instintiboa eta espontaneoaren errespetatzea. Horretarako, ama hizkuntza eta oinarri musikalak aldi berean eskuratzea garrantzitsua da. Gainera, abesti tradizionalak eta ingurukoak erabiliko dira. Ikasteko euskarri nagusia jolasa izango da.
- "Motibazioa, autoestimua estimulatzea eta elkarlana bultzatzea". Ikasleak parte hartzearen garrantziaz jabetuko dira.
- "Sormena, inprobisazioa eta adierazkortasuna". Berehalako argibideak erabiliko dira haurra garatzen lagunduko duten berezko gaitasun adierazkor eta naturalen bitartez.
- "Zentzumen eta pertzepzio gaitasuna, erlaxatzeko eta kontzentratzeko gaitasuna eta isiltasunaren balorazioa". Musikarekin lotutako adierazpen mugimenduak egingo dira, hala nola, erlaxazio- eta kontzentrazio-teknikak.
- "Gaitasun erritmiko, motor eta adierazkorak". Pertzepzioa eta adierazpena aldi berean garatzeko ahalmena egin behar da.
- "Intonazio gaitasuna eta barne belarria". Honen garapenerako bi teknika erabiliko dira: irakurketa plastikoa eta keinuak.
- "Irakurketa erritmikoa eta melodikoa erraztu eta sinplifikatu". Egile bakoitzak proposatzen du printzipio hori lortzeko erabili beharreko metodo ezberdinak.

Adibidez, Martenotek nota musikalen balioa pultsazio erritmikoekin erlazionatzen du; Dalcrozek txartel grafikoak erabiltzen ditu notak balioan jartzeko eta Kodályk fonema erritmiko errazak erabiltzen ditu.

Ikasteko estrategia didaktikoei esker, praktika musikalaren bitartez alderdi psikologiko, intelektual eta korporalak bereganatzen dira, baita, irudimen eta sormenaren garapenean ere oso lagungarriak dira.

3.5 Musika praktikaren ekarpenak haurren garapenean

Sargetek (2003) musikaren ekarpenen inguruan aipatzen duen moduan, musikak haurren garapenean, memoria, arreta eta kontzentrazio gaitasunak areagotzen ditu, adierazteko modu bat da, haurren irudimena pizten du dantzarekin konbinatzerakoan, zentzumenak, oreka eta giharren garapena suspertzen ditu, haur zein helduekiko harremanak izateko aukera eskaintzen du, beste ekarpen askoren artean. Aipatutako onura edo ekarpenekin jarraituz, esan beharra dago, haurrengan sormena bultzatzen duela eta hau oso ezaugarri garrantzitsua da. Honen bitartez haurrari errealitatearen ikuspegia eta hura ezagutzeko aukera edo laguntza ematen dio. Beraz, musikak haurren garapenean eragiten dituen alderdi positibo ugari daude eta horregatik garrantzitsua da ikasgeletan musika hezkuntza integratzea haurren garapen bide gisa.

Esan bezala, musika praktikaren bidez gaitasun desberdinak garatzen dira, hala nola; entzumena, harreman espaziala, motrizitate fina, koordinazio bisomotoerea, lateralitatea, adimen mekanikoa, erritmoa, kontzentrazioa eta adierazpen emozionala beste batzuen artean (Reynoso, 2010). Aipatutakoarekin bat eginez, ikaskuntza prozesuak mesedegarriak izaten dira soinu, erritmo eta interpretazio musikalaren bidez (Campbell, 2001). Baita, musikaz baliatuz ere, haurrak lankidetzara eta komunikazioaren elkarrengana hobetzeko gaitasunak beste haur batzuekin batera garatuko ditu, sortzen diren emozioetatik baliatuz ikaskuntza esanguratsua, sormen arazoak konpontzeko gaitasuna edo ahalmena garatuko dute (Nussbaum, 2012).

Haur hezkuntzako haurrentzat, musika, ikasteko, gozatzeko eta adierazteko modua da. Honekin, haurrek euren gorputza errepresentazio eta komunikazio baliabide gisa erabiltzen dute. Hori dela eta, jokia jarduerara garatzeko oinarri bezala erabiltzen da, orduan hona etapa honetako musika hezkuntzaren tratamendua guztiz ludikoa izatea ezinbestekoa da (Barbarroja, 2007). Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da haurrari hainbat tresna eta baliabide eskaintzea, hala nola, jolasen aniztasuna; txaloka, txandekin, abestiek, diskriminazioa eta soinuak ezagutzearekin, gorputzarekin soinuak sortzea, entzumen

gaitsuana izatea, keinu eta mugimenduekin, dantzarekin, manipulazioa eta soinu elementuak edo musika tresnen erabilerarekin... (Martenot, 1993).

Haurraren bilakaera kontuan hartuz, kasu honetan, gradualki egin behar dena haurraren banakotasun sentimendua, adimena eta moralitatea unitate bezala ulertu behar dira. Zentzu honetan, garapen terminoa berreraikuntza eta berrantolaketa prozesu gisa iraunkorra ulertzen da. Beraz, motrizitate fina, koordinazio bisomotorea, kontzentrazioa, lateralitatea eta harreman espaziala aktibatu edo garatu daitezkeen gaitasunak dira, musika hezkuntza euskarri gisa erabiliz (Reynoso, 2010).

Campbelek (2001) esan zuen moduan, kontzentrazioa ahalbidetzen duten konexio neuronalak, matematikako trebetasunak eta hizkuntzen ikaskuntzak, entzutearen edo musika praktikaren aldekoak dira. Esan beharra dago, ingurune musikal aberatsak jaso dituzten haurrek, euren bizitzako lehenengo hiru urteetan zehar aukera handiagoak izaten dituzte ikaskuntza prozesu onuragarriak bizi ahal izateko, batez ere, matematika eta zientzia arloetan.

Era berean, musika prozesuen bidez sortutako estimulua, psikologian inplikazioa du, hala nola, emozio, sentimendu eta ebokazio ezberdinak sortzen direlako. Horrekin bat eginez, arreta, sorkuntza eta irudimen prozesuan, kontzentrazioan, epe laburrerako edo epe luzeko memorian, era berean azterketan, ordenean eta ikaskuntza prozesuan aipatutako prozesu musikalak asko laguntzen du (Poch, 1999; Alvin, 1997; Cruz, 2001, Soton aipatua, 2002).

Musikaren alderdiak aztertzen jarraitzen baditugu, praktika instrumentalarekin batera, motrizitate fina eta lodia, mugimendua, koordinazioa, kontrol psikomotorra, afektibitatea etab landu egiten dira. Entzumenaren bidez lortzen dugu arreta, hezkuntza-entzumena, entzumen diskriminazioa, musika kulturala, ingurunea estimatzea etab. Berriz kantekin batera, memorizazioa, ohiturak, errutinak, ordena etab lortu egiten dira. Bukatzeko, mugimenduekin eta dantzarekiko ikuspuntu psikomotorrarekin erlazionatutako guztia, egoerak, sentimenduak eta errespetua adieraztea lortzen da (Riesco Jimenok, 2009).

Gainerako pertsonekin abesterakoan gorputza, arnasa, tonuak bateratu eta ahotsa murriztu edo proiektatu harmonia sortzeko haurren ardura piztea eragiten du. Aipatutakoaz gain, beste kultura eta garai batzuetako musika interpretatzeak haurrei aukera ematen die, kultura horiek ezagutu, ikusteko eta mundua hautemateko modua zein den jakiteko. Beraz, hezkuntza artiskoa irudimena garatzeko tresna da, ikasleen garapen kognitibo eta

intelektualaren eragin handiaz gain gizartearen garapenean, herritar enpatiko eta sortzaileen eraketan ere eragina du (Díaz Gamba, Liliana Díaz eta Morales Bopp, 2014).

Webberrek (1974) azaltzen duenez, haurren musikarekiko esperientzia bikoitza da: pertzepzioak erantzuna estimulatu du, hau da, haurrak hainbat kontzeptu ikas ditzake musikaren elementuei (melodia, erritmoa, dinamika...), abestiei eta entzumenari esker. Modu honetan, egoera edo jardura hauetan erantzuteko funtsezko baldintza entzumena da.

Laburbilduz, ariketa edo praktika musikalaren barruan presente dauden ikasketa erreperitorioak honako hauek dira: psikomotrizitatea, arreta, memoria, pertzepzioa, zenbakizko trebetasuna, arrazoibide abstraktua eta hitzezko trebetasuna (Zorrillo, 2004).

3.6 Testuinguru profesionala, irakasleen prestakuntza

Hezkuntzaren alderdirik garrantzitsuena irakasleen prestakuntza da. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta eguneroko ikasgelako praktika ezin da inprobisatu, beharrezkoa baita diziplina zientifiko desberdinen ezagutza teoriko-praktikoan oinarritzea. Horrela, hauek hausnartu eta gero, irakasleari adieraziko diote egoera zehatzetan ikasgelan esku hartzeko modurik egokiena (Gervilla, 1992).

Bai prestakuntza eta bai garapen profesionalak, irakasleei ezaguera eta gaitasun musikalak eskaini behar dizkiete beharrezkoak diren saioetan ezarritako jarraibideak aplikatzeko (agindutako curriculum). Hori dela eta modu honetan ulertzen dugu irakasleen formakuntza: ikaskuntza esperientzien bidez, ezaguerak eskuratzen edo hobetzen dituzte, trebetasun eta antolaketa euren irakaskuntzaren garapenean profesionalki esku hartzeko aukera ematen dutenak, curriculum eta eskola, ikasleek jasotako hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz (Marcelo, 1994).

Gimenok (1982) irakasleen formakuntzari erreferentzia eginez, honeko hauek aipatzen ditu:

“maila ezagutza nahikoa; haurren psikologiarekiko sentsibilizazioa; metodologia ezberdinen trebakuntza; ikasgelan eta eskolan pertsonen arteko harremanak ulertzea; irakasleen zeregin didaktikoaren epe labur, ertain eta luzeko programazioa; ikasleen edukien konexioa bai pedagogiarekin bai ingurunearekin; aukeraketa, erabilgarritasuna eta irakaskuntzarako bitarteko tekniko egokiak; ikasleenganako diagnostiko eta ebaluazio gaitasuna, bere ikaskuntza eta ikaskuntza hori zehazten

duten aldagaiak; eskolaz kanpoko ingurunean integratzea, ikasgela eta zentruaren antolaketa bere guneetan moldatu eta arreta berezia eskaini ikaskuntzari eta haren arazoei”.

Riesco Jimenok (2009) galdera bat planteatzen du:

“haur hezkuntzako irakasle batek nola aplikatu dezake musika gai horretan espezialista ez bada? Erantzuna erraza da. Material espezializatuak behar dira ideia horiek jarraitu ahal izateko. Lan mota hau onartzen duten baliabide eta material gutxi daude. Argitaletxe gehienek euren jardura musikarako proiektu global batean integratzeko konpromisoa hartzen dute, non musika bi fitxategi sinpleetara murrizten den”.

Hemsey de Gainza (1964), González (1974) eta Aronoffek (1974) erreferentzia egiten diote irakasleek musika esperientzia transmititzeko gai izan behar duen prestakuntzari. Horretaz gain, ezinbestekotzat hartzen dute musikak haurraren bizitzan eduki dezakeen garrantzia, haurrengan duen erakargarritasuna, garapen emozional eta intelektualean ekarpenak egitea, bere ezaugarriak ardatz motibatzaile eta globalizatzaile gisa ezagutzearen beharra, baita musikaren eragina etapa honetan beste ikaskuntza batzuk eskuratu ahal izateko (Bernal eta Calvo, 1997).

Laburbilduz, esan beharra dago Imbernónek (1998) defendatzen duen moduan, hasierako irakasleen prestakuntza kultura profesionalerako lehen urratsa dela. Horrek hasierako prestakuntza proposatzen du ekintzen ikerketaren metodologia oinarritzat hartuta, hau da, teoria eta praktikaren arteko lotura ezarriz. Horrek dakar etorkizuneko irakasleen prestakuntzaren alde egiten duten jakintza, estrategia, baliabide eta material espezifikoa.

3.7 Musika hezkuntza antolatzeako bloke musikalak

Aurreko informazio guztia kontuan hartuta, musika hezkuntza bost multzo musikaletan oinarritzen da, kontuan hartuko ditugunak: musika hizkuntza, entzumena, ahotsa eta kanta, dantza-mugimendua eta musika tresnak. Curriculumean ikus dezakegu edukiak blokeetan antolatuta agertzen direla Haur Hezkuntzako lehenengo eta bigarren zikloa bereiztuz. Bigarren zikloaren barruan lau bloke daude eta 3. bloke horretan hizkuntza artistikoa aurkitzen dugu, honako musika edukiak jasotzen dituenak (12/2009 Dekretua: 33):

- Ahotsaren soinu aukerak, gorputza bera, eguneroko materialak eta objektuak eta musika tresnak arakatzea.
- Soinu eta erritmo sinpleen ekoizpena: melodiak interpretatzeko edo beste produkzio batzuk laguntzeko: testuak, irudiak...

- Mugimendu-soinu eta hitz-soinuen arteko koordinazioa izatea, jolas, abesti, errima eta ipuinen bidez.
- Ingurune natural eta sozialetik soinuak ezagutzea: animaliak, telefonoa...
- Soinu bereizgarri batzuen eta oinarrizko soinuen kontrasteen entzumen diskriminazioa (zarata-isiltasuna, luze-laburra, ozen-astuna, baxua).
- Genero eta estilo desberdinetako musika lanen entzute aktiboa.
- Folklorearen eta beren kultur ingurunearen bestelako adierazpen artistikoekiko balioa eta interesa.
- Ekoizpen artistikoko proiektu kolektiboetan parte hartzeko ekimena eta interesa.

Aipatutako edukiak ikasturtean zehar garatze aldera, Barrenak (2016) proposamen bat luzatzen du bi oinarri kontuan hartuta, alde batetik soinuaren parametroak (altuera, intentsitatea, iraupena eta timbrea) eta bestetik, musikaren oinarrizko elementuak (erritmoa, melodia, armonia eta forma). Hauek ezinbestekoak izango dira haur hezkuntzan ezarritako musika eduki guztiak landu ahal izateko ikasturtean zehar modu antolatatu batean. Horretarako, argitzenduen moduan, “proposamen bat da eta ez programazio zurruna, non musika lengoaiaren edukiak eta bere adierazpen aukerak ugariak diren eta dena ezin da barne hartu hezkuntza etapa honetan”. (*Ikus bedi 2. eranskina, 69. or.*).

4. Helburuak

Gradu Amaierako Lan honetan plateatzen diren helburuak honako hauek dira:

- Arrigorriagako eskolan lau urteko gelan, musika saioen errealitatea behatzea eta aztertzea, gaur egungo Musika Hezkuntzaren egoerari ekarpen bat eginez:
 - Ikastetxeetan hezkuntza musikalaren presentzia eta garatzen diren edukien egokitzapen maila haur hezkuntzari begira zein den ikustea.
 - Hurrek musika saioetan erakusten duten parte hartzea behatzea.
 - Hezkuntza musikala gaitasunak eskuratzen laguntzen duela behatzea.

5. Metodoa

Helburuetan aipatu bezala, Arrigorriagako eskolan lau urteko gelan musika saioen errealitatea behatzea eta aztertzea izan da nire abiapuntua. Kasu honetan, Practicum IIIa dela eta bertan praktketan egon naiz, hots, azaroaren 4tik urtarrilaren 24ra arte, beraz, denbora tarte horretan behaketa hau aurrera eramateko aukera izan dut. Aurreko lerroetan aipatutako behaketa sistematikoa izan da, hau da, haurren jokabidea testuinguru natural batean behatzea, hain zuzen ere, ikasgela, ikastetxe eta programa edo egoera zehatz batean.

Behaketa horren bidez ezagutza gauzatu edo sortu egiten da. Behaketa metodoa, ezagutza ezberdinak lortzean datza, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua helburu duenean. Irakasleak haurren informazioa lortzeko behatzen du. Horretaz gain, haurren ebaluazioari buruzko informazioa ematen duen prozesu sistematikoa da, objektiboa eta aldizkakoa izan behar dena. Objektiboa dela esan dezakegu, haurren beharrak identifikatu eta asetzeko aukera ematen duelako eta hori dela eta, erabakiak har daitezke. Informazioa lortzeko borondatezko arreta eskatzen du. Azken finean, behaketa sistematiko honen gakoa, haurrek eta hauenganako informazioa lortzera zuzenduta dago (Batlle Rodríguez, 2017).

Herrero Nivelaren esanetan (1997) behaketak lorpen zehatz batzuk bete behar ditu, hain zuzen ere, metodologia guztientzako ohikoak direnak:

- Dagoeneko eraturako ikerketa baten helburua zerbitzatzea.
- Sistematikoki planifikatzea.
- Bildutako datuak optimizatzea.
- Estrategia analisiaren helburuaren arabera egokitzea.

Hala ere, lau lorpen horiek betetzeko zailtasunak beste metodo batzuetan baino handiagoak izaten dira, behaketa egoeraren izaeragatik, egoera aurreikusi ezin delako, beraz, batzuetan ez dira homogeneousotasun, koherentzia irizpideak... betetzen. Gainera, ikusi ezin diren jokabideak daude. Horretaz gain, Stenhousek (1992) aipatzen du behaketa sistematikoa, planifikatua eta praktikarekiko autokritikoa izatea ezinbestekoa dela, betiere, epe konkretu eta modu sistematiko batean, hain zuzen ere, kausa-efektuak bilatu eta ebidentzia zientifikoetan oinarritutako ondorioak egotsi behar direla.

Behin behaketa sistematikoa azalduta, prozesu hau aurrera eramateko jarraitutako urratsak zeintzuk izan diren azalduko dira. Lehenik eta behin, prozesu honen hasiera praktketan oinarritzen da, izan ere, ezinbestekoa izan da egoera berezi eta zehatz hau eman izana, hau da, musika saioak ematea eskolan. Oinarri hau ezinbestekoa izan da

pentzatutako proiektua aurrera eramán ahal izateko: lana planifikatua izan da eta aurrera eramán baino lehen eskolari aurkeztu zaio, beraz, behaketa hau haien oniritziarekin aurrera eramán da. Praktiketán egon naizen bitartean aukera izan dut behaketa hau burutzeko, horregatik, esan beharra dago, aspektu horretán zorte handia izan dudala. Behin aipatutako aukera nire esku zegoela ikusita, hurrengo urratsa behaketa fitxa sortzea izan zen.

Fitxaren diseinua eta aukeratutako behaketa parametroak sortu ahal izateko oinarria ezinbestekoa izan da, horretarako bi inspirazio iturri kontuan hartu ditut; Gómez Ortega (2014) eta Martín Sánchezen (2013) Gradu Amaierako Lanak. Hori dela eta, fitxategia nire sorkuntza edo jatorrizkoa izatez gain, beste material baten aurreko behaketán eta azterketán oinarritutako lana da. Parametroei dagokionez, haurrei zuzenduak edo bideratuak izan dira, hain zuzen ere, musika saioetan erakusten duten parte hartzeri. Beraz, guzti hau kontuan hartuta, fitxa hiru atalez osatuta dago, kasu honetan, atal ezberdinak lantzeko: saio bakoitzeko hiru atal bete behar direla, lehenengo eta azkena gelako jardueretan oinarritua eta bestea berriz, haurren parte-hartzean. (*Ikus bitez 1. eranskina, 39. or.*)

Lehenengo atalari erreparatuz gero, saioa, data, ordua, jardueren deskribapena, erabilitako materiala, espazioa eta jardueren helburua aurki daiteke, hain zuzen ere, saio bakoitzaren informazio orokorra eduki ahal izateko. Esan bezala, bigarren atalari dagokionez, gelaren parte-hartzean oinarritzen da eta horretarako taula batean datuak jaso behar dira. Esan beharra dago, X baten bitartez bete dela, “guztiak, gehienak, nahiko edo gutxi” terminoak erabiliz. Gutxi-gora-behera honen antolakea hurrengoan izan da: talde osoa (guztiak), taldearen erdia baino gehiago (gehienak), taldearen erdia edo gutxiago (nahiko) eta taldeko herenak edo gutxiago (gutxi). Honen arabera taula bete zen, beiterre, beharrezkoak iruditutako oharrak kontuan hartuz eta bertan idatziz.

Hirugarren eta azken atalean aipatu bezala, jardueretan oinarritzen da, kasu honetan, jarduera ezberdinen informazioa sakonago jasotzen da. Horretarako, hiru galdera ezberdin plantetuta daude, hala nola, zer egiten da? nola egiten da? eta zertarako egiten da? Galdera hauen bitartez, jarduera bakoitzeko informazio guztia jasotzeko sortuak izan ziren, galdera bakoitzari beharrezko erantzuna emanez.

Aurreko lerroetan idatzitakoari erreferentzia eginez, behaketa fitxak astean behin betetzea gako garrantzitsua zen, praktikaldian igarotako asteetan burututako jarduerak behatu ahal izateko. Haurrek asteazken arratsaldetan musika saioak zituzten eta honek arazo batera bideratu niduen. Praktikaldia dela eta, hau osatzeko beharrezko lau mitengi

daude, non bertan egonaldiaren inguruko informazioa partekatzen da. Horregatik, aipatzekoa da ere, behaketa horien falta betetzeko eta saioen edukia ahalik eta hoberen jarraitzeko, nahiz eta saio horiek ikusi ez, gertatutakoaren inguruan galdetzea ezinbestekoa izan da, bertan sortutako hutsuneak bete ahal izateko.

5.1 Ikastetxearen testuingurua

Arrigorriaga HLHI herri eskola Bizkaian kokatutako dago, hain zuzen ere, Arrigorriagako herrian. Eskola Mikel Alonsotegi kalean dago. Eskola 1986-1987 ikasturtean sortu zen 1983ko uholadeak eta gero. Hasieran bi eraikuntza izan zituen, haur hezkuntza eta lehen hezkuntza, baina, herria hazi ahala, handitu behar izan zen eta orain hiru eraikuntza ezberdinez osatuta dago. Lehenengo eraikuntzan 2 eta 3 urteko haurrak daude, eraikuntza berrian 4 eta 5 urtekoak eta eraikuntza nagusian lehen hezkuntzakoak. Nire kasuan, eraikuntza berriko haur hezkuntzako lau urteko gela batean egon naiz.

Haur Hezkuntzako etaparen inguruko kokapenari erreparatuz, lehen aipatu bezala, lehenengo eraikuntzan (“papelera” izenekoa) 2 eta 3 urteko haurrak daude. Eraikuntza berrian bi solairu daude: lehenengo solairuan lau gela, informatika gela bat hornitu gabe, liburutegia, musika gela, tutoretza bat eta komunak. Bigarren solairuan 5 ikasgela daude, psikomotrizitate gela bat, laguntza gela bat, gorputz hezkuntzako tutoretza, bideo gela eta komunak. Esan beharra dago, lehenengo solairuan lau urteko haurren gelak daudela, berriz, bigarren solairuan bost urtekoak. Jolastokia ere espazio desberdinetan banatuta dago adinaren arabera, kasu honetan, patio txikian 2, 3 eta 4 urteko haurrak egoten dira eta patio nagusiko eskuinaldeko zatia eta arkupea, 5 urteko haurrentzako da. Eskolan haur hezkuntzaren kasuan, maila bakoitzeko hiru gela daude, hain zuzen ere, A, B eta C. Honekin esan nahi dudana da, orokorrean haur hezkuntzako hamabi gela daudela eta horietatik hamar gela, hau da, hiru, lau eta bost urteko hurrek musika saioak dituzte.

5.2 Ikasgelaren testuingurua

Ikasgelaren atalari hasiera emateko, azpimarratzekoa da, gelan 22 haur zeudela. Orokorrean, Arrigorriagako eskolaren giroa nahiko euskalduna da, hain zuzen ere, ikasleei, euskal partaide bezala, euren kultur nortasuna ezagutu eta baloratu laguntzen diena.

Haur hezkuntzan maila bakoitzeko hiru gela daude, hain zuzen ere, A, B eta C. Esan beharra dago, gela bakoitzean espazioa modu ezberdin batean antolatuta dagoela, batez ere, haurren adina eta beharren arabera, baina, adin tarte berdineko gelak oso antzekoak dira beste adin batzuekin konparatuz gero.

Orokorrean, ikasgelako jarduerak adimen anitzak lantzeko izaten dira. Ikasgelaren antolakuntzak garrantzi handia du, haurren interes eta gaitasunen aniztasuna kaltetu ez dezan. Ikasgelek egitura nahiko sinplea dute, betiere haurren adinari eta beharrei egokituia. Gela txoko ezberdinez osatuta dago, jolas, hizkuntza/matematika, etxe eta plastika txokoa. Esan dezakegu espazioa nahiko ondo antolatuta dagoela, txoko bakoitzak bere espazio askea eta zabala duelako. Ikasgela horrela antolatuta egon arren, haurren adinari, interesei, beharrei eta eskolako baliabideen arabera espazioaren antolaketa aldagarria izan daiteke. Esan beharra dago, musikarekin zerikusia duen txokorik ez dagoela, musika saioak beste gela batean egiten direlako.

Irakaslearen aldetik, kasu honetan gelako tutorea dena, ikaskuntza honen gidari eta dinamizatzaile gisa jokatu, eta eginkizun aktiboa eta etengabea du. Horrekin haurrek beharrezko laguntza bere aldetik jasotzen dute. Gainera, irakasleak haur edo ikasle bakoitzaren hezkuntza beharrak ezagutzen ditu, beraz, taldekatzeak, curriculumeko egokitzapenak edo materialak egiten ditu eta ikasle bakoitzak behar dituen jarduerak ere. Aurreko informazioarekin bat eginez, esan beharra dago, musikako irakasle bat dagoela, hain zuzen ere, haur hezkuntza eta lehen hezkuntzako lehenengo hiru maileri musikako saioak ematen dizkiena. Berriz, lehen hezkuntzako musika espezialista profila duenak, gainerako mailetatik arduratzen da.

Musikako gela haur hezkuntzako eraikinean aurkitzen da, baina, ez da soilik haur hezkuntzako ikasleentzako, baizik eta lehen hezkuntzako lehenengo, bigarren eta hirugarren mailetako ikasleentzat ere. Honek esan nahi du, gela ez dagoela haur hezkuntzako haurrei zuzendua. Nahiz eta espazioa handia izan, aulki handiak daude, kasu honetan lehen hezkuntzako ikasleentzako. Berriz, haur hezkuntzako ikasleak lurrian esertzen dira, betiere, pantaila digitalaren aurrean. Hau gertatzen da, jarduera gehienak arbel digitalarekin aurrera eramaten direlako, batez ere, haurrekin abestiak edo musika tresnak jotzerakoan. Hauei dagokionez, triangeluak, zotz txinatarrak, marakak eta klabeak aurki daitezke.

6. Emaitzak

Behaketaren bitartez lortutako informazioa aztertu eta gero, hainbat ideia argitu ditugu. Esan beharra dago, behaketa fitxa bakoitza astean behin bete dela, haur hezkuntzako haurrek astean zehar musika saio bakarra izan dutelako. Behaketa honen bitartez jasotako informazioa ugaria izan da, hala nola, haur hezkuntzako saioetan aurrera eramandako jarduerak (nola, zer eta zertarako egin), haurren parte hartzea edo interesa nolakoa izan den ikustea, erabilitako materiala, espazioa etab. Guzti hau kontuan izanda, gaur egungo musika saioen errealitatea behatzea eta honen presentziaz jabetzeko ezinbesteko tresna izan da.

Horretarako bost bloke musikalak kontuan hartuko dira, hala nola, musika hizkuntza, entzumena, ahotsa eta kanta, dantza-mugimendua eta musika tresnak. Puntu honetatik abiatuta, bost bloke musikalen hauen inguruan azaldutako sistema erabiliko da jardueretan egindakoa baloratzeko. Oinarri hau edukita, ideia edo gako nagusia curriculum jarraituz gero, nahiko zaila izaten da antolaketa bat jarraitzea, beraz, bost bloke musikalen eta soinuaren parametroak kontuan hartuz, hauek askoz antolatuagoak agertzen dira. Hala ere, curriculumeko zehaztapenak ere, betetzen dira.

6.1 Jardueren behaketa

Musika saioak astean behin, hau da, asteazkenetan aurrera eramaten ziren. Horretaz gain, gela zehatz bat dago, non bertan musika saioak egiten diren. Honek esan nahi du, haurrak musika duten bakoitzean gela aldaketa egin beha dutela. Musika saioari erreperatuz gero, berrogeita bost minutukoa dela esan dezakegu. Aurreko ataletan esan bezala, behaketa atal ezberdinetan banatuta dago eta atal hau, hain zuzen ere, jardueri dagokio.

Hurrengo lerroetan gelan landutako jarduera ezberdinen deskripzioa dago, kasu honetan, lehen aipatutako blokeak kontuan hartuz. Adibidez, musika tresna ezberdinekin trebatzea, hau da, gaitasun edo helburu ezberdinak lortzeko hauen erabilerak presentzia izan du, abesti berriak ikasteaz gain, hauen dramatizazioan ere murgiltzea, hots, musika tresnen jardueretan ez bezala, saio ezberdintean abesti hauen lanketa egiten da, haurrek ikasitakoa gogoratzeko eta praktikan jartzeko, dantza mota ezberdinak aurrera eramatea, hala nola, irakasleak irakatsitakoak eta arbel digitalaren bidez ikasitakoak...

- Txartelak erakutsi eta musika tresnak jo. Jarduera honetarako, gela bi taldeetan banatu zen eta irakasleak haur bakoitzari bi musika tresna (klabea eta maraka/triangulua eta maraka) eman zizkien. Irakasleak txartel ezberdinak erakustean haurrek txartelean agertutako musika tresna jo behar zuten.

- Aldapeko dramatizatua. Lehenik eta behin, hurrek ikasita zuten abestia arbel digitalean agertutako irudien bitartez ikasi dute. Ondoren, abestiak esandako hitzekin eta arbelean agertutako irudiekin, abestia dramatizatu dute mugimendu ezberdinak eginez.
- Dantza. Haurrak binaka jarrita borobil bat osatu zuten. Aurreko asteetan ikasitako dantza zen, beraz, haur guztiek jarraitu beharreko pausuak gogoratzen zituzten. Binaka jarrita, zortzi kolpe hanketan, zortzi txalo eskuetan eta bikoteen artean birak eman behar zituzten.
- Beltza eta kortxea ezberdindu musika tresnak joz. Irakasleak bideo bat jarri eta hurrek zotz txinatarrekin batera, bertan agertutako beltzak eta kortxeak jo behar dituzte, betiere, irakaslearen laguntzarekin batera.
- Akerraren abestia. Irakasleak hurrei abesti berri hau irakasteko, irudi eta mugimenduak erabili zituen, bi edo hiru aldiz errepikatuz.
- Zaldiaren dantza. Erritmoa lantzeko jarduera da, kasu honetan, abestia hasten zenean, zaldia bezala ibili behar ziren. Ondoren, erritmoa azkartzen denean “trostan” eta azkenik erritmoa oso azkarra denean “galopean” joan behar ziren.
- Dordoka eta erbia. Jarduera honetan gela bi taldeetan banatu zen, hain zuzen ere, dordokak eta erbiak. Kasu honetan, dordokek oso azkar korrika egin behar zuten, berriz, erbiek, oso astiro. Musikaren erritmoa aldatzen zenean, haurrak gelaren erdigunera irten behar ziren, esleitu zaien pertsonaia imitatuz. Orduan, abestiak *presto* esaterakoan, dordokek korrika egin eta *largo* esaterakoan berriz, erbiek astiro eta nekatuta ibili behar zuten.
- Estatuaren jolasa. Jolas oso ohikoa da, kasu honetan, irakasleak arbelean musika ezberdinak jarri zituen eta musikak jotzen zuen bitartean hurrek dantzatu behar zuten. Musika gelditzerakoan “estatuak” bihurtu behar ziren, betiere, posizio bat bereganatuz.
- Pinguinoaren abestia musika tresnekin jo. Irakasleak hurrei zotz txinatarrekin jarraitu beharreko pausuak erakutsi dizkie (lurra, belaunak, albokoarekin eta airean). Ondoren, irakaslea imitatu dute, berak emandako jarraibideak kontuan hartuz.
- Olentzero eta Mari domigi. Jarduera zehatz bat izan zen, hain zuzen ere, gobenei begira. Abestiak irakasteko teknika berdina erabili zuen, hain zuzen ere, irudiak eta mugimenduak.
- Just dance. Irakasleak hurrei “Just Dance” jolaseko bideo bat jarri zien eta hurrek bideoaren mugimenduak imitatu behar izan zituzten.
- Xoxoaren abestia dramarizatu. Abesti honekin hasteko, xoxo baten irudia erakutsi zien eta banan-banan xoxoaren atalak aipatu zituzten. Behin guztiak aipatuta,

irakasleak abestia arbel digitalean jarri zien, xoxoak galtzen zituen atalak zeintzuk ziren seinalatuz.

- Epo itai tai e abestia musika tresnekin jo. Irakasleak haurrei irudiak erakutsi dizkie (beltza, kortxea, eta zuria). Horietako txartel bakoitzak musika tresna bati erreferentzia egiten dio, adibidez, marakak (beltza) klabeak (kortxeak) eta triangelua (zuria).
- Egipto. Irakasleak Egiptoko abesti ezberdinak jarri zituen, eta hurrek modu aske batean hauek dantzatu zituzten.

6.2 Haurren parte-hartzea

Haurrek musika saioetan izandako parte-hartzeari erreparatuz gero, esan beharra dago, aste guztietan zehar positiboa izan dela. Behaketa fitxetan ikus daitekeen moduan (*Ikus bedi 1. eranskina, 39. or*), parte-hartzeaz gain, interesa, kontzentrazioa eta errespetua adierazi dute. Adibidez, nabarmentzekoa da dantzetan edo mugimenduekin lotutako jardueretan euren parte hartzea eta interesa nabariagoa izan da abestiekin batera. Berriz, gustuko ez zituzten musika tresnak jotzerakoan, hauen interesa eta kontzentrazioa murriztu egiten zen.

Musika tresnekin egindako ariketa gehienetan, haurren parte-hartzearen atalean behatu izan ahal dudan moduan, musika tresna bat jasotzen zuten momentuan jotzen hasten ziren, baina, haur batek kolpeak ematen hasi bezain laster gainerako hurrek jarrera berdina imitatzen zuten eta hori gelditzea nahiko zaila izaten zen. Baita, musika tresnaren arabera, hurrek interes handiagoa edo txikiagoa erakusten zuten, adibidez, zotz txinatarrak erabiltzerakoan interes falta nahiko nabaria zen, berriz, triangelua, marakak edo klabeak jotzerakoan guztiz kontrakoa. Honekin esan nahi dudana da, haur batzuk musika tresna zehatz bat erabiltzerakoan, hau da, zotz txinatarrak, ez zituzten irakasleak ematen zituen jarraibideak jarraitzen eta nahi zuten moduan erabiltzen zituzten, berriz, aurreko lerroetan aipatutako musika tresnekin irakaslearen urratsak jarraitzen zituzten. Beraz, soinu gogorrek edo ozenak sortzen dituzten musika tresnak nahiago dituzte, ixilak, kasu honetan, zotz txinatarrak baino.

Abesterako orduan, oso ohikoa izaten zen oihuak entzutea. Momentu horretan, haur bat oihukatzen hasi bezain laster, gainerakoek bera baino gehiago oihukatu nahi zuten, beraz, iskanbila handia sortu egiten zen. Orokorrean, abestea asko gustatzen zaie, batez ere, mugimenduekin lotura duten abestiak. Kasu batzuetan, haur batzuk abesti eta mugimenduekiko loturak egiterakoan, zailtasunak izaten dituzte, beraz, irakaslearen mugimenduak imitatzea ezinbestekotzat dute. Dantzetan ere egoera berdina errepikatzen

da, nahiz eta parte hartzea eta interesa handia izan, haur batzuk, gutxi izan arren, imitazioa beharrezkoa dute, dantzaren jarraipena egin ahal izateko.

Musika saioen hurren entzumenari erreparatuz gero, aurreko atal guztiak bildu egiten ditu, kasu honetan, musikako jardueretan musikaren entzuketa ematen baita. Aurreko informazioa eta hurren musikarekiko interesa kontuan hartuz, argi eta garbi dago, musika entzutea oso gustuko dutela, hain zuzen ere, kasu gehienetan honekiko arreta mantentzen zutelako, nahiz eta entzuketa aktiboa lantzeko jarduerak ez egin.

Soinuaren parametroak	Bloke musikalak								
-----------------------	-----------------	--	--	--	--	--	--	--	--

	Altuera	Intentsitate	Iraupena	Timbrea	Musika hizkuntza	Entzumen	Ahotsa eta kanta	Dantza-mugimen	Musika tresnak
"Txartelak erakutsi eta musika tresnak jo"	X	X	X	X	X	X			X
"Aldapeko dramatizatua"					X	X	X	X	
"Dantza"			X	X	X	X		X	
"Beltza eta kortxea ezberdindu musika tresnak jo"	X	X	X	X	X	X			X
"Akerra"					X	X	X		
"Zaldiaren dantza"			X	X	X	X		X	
"Dordoka eta erbia"		X		X	X	X		X	
"Estatuaren jolasa"			X		X	X		X	
"Pinguinoaren abestia musika tresnekin jo"	X	X	X	X	X	X			X
"Olentzero eta Mari domigi"					X	X	X		
"Just dance"				X	X	X		X	
"Xoxoaren abestia dramarizatu"					X	X	X	X	
"Epo itai tai e abestia musika tresnekin jo"	X	X	X	X	X	X	X		X
"Egipto"				X	X	X		X	

7. Ondorioak

Gradu Amaierako Lan honetan egindako behaketa sistematikoa, haur hezkuntzako gela batean oinarritu da. Horregatik, eskolari eskertzen diogu luzatutako aukera euren atea zabalduz. Horretaz gain, bertako praktika musikalaren inguruan jakin nahi izan dugu, betiere, balorazio edo epaiketarik gabe, gure asmoa izan da praktika hori ezagutzea eta ez eskolan ematen den hezkuntza gaitzestea.

Lan honi dagokionez, aurretik sortutako helburuak lortzeko ibilbidea izan da, batez ere, praktiketan egon naizen bitartean bertako egoera edo errealitatea behatzeko aukera izan dudalako. Honekin esan nahi dudana da, plateatutako helburu guztiak behaketa honen bidez lortu ahal izan direla, batez ere, gaur eguneko errealitate zehatz hau zein den behatuz eta musika hezkuntzaren egoerari ekarpen bat eginez, jakintza komunitatearekin emaitza hauek partekatuz.

Lortutako emaitzei dagokionez, ideia ezberdinak berreskuratu ditugu. Lehenengo ideari dagokionez, haur hezkuntzan gaur egun musika hezkuntza errealitate bat da, nahiz eta saio bezala existitu ez, egiten dira, hala nola, ingelesa, musika, psikomotritzitatea, besteak beste. Hauek saio bereziak eta bereiztuak izaten ohi dituzte ordutegiaren barruan. Bigarren ondorio edo ideia, musikak haurren garapenean asko laguntzen duela da, hain zuzen ere, gaitasun ezberdinak bereganatuz. Honekin batera estimulu musikala lotu daiteke, hau da, ezin ditugu haurren bizitza inguratzen duten musika estimulu guztiak alde batera utzi. Askotan, haurrek euren abesti gogokoak abesten dituzte, erlaxatuta daudenean eta gustuko zerbait egiten dutenean. Musikaren bidez euren adierazpen eta irudimen gaitasuna garatzen dute, baita entzumen ahalmena ere, eta horrek heldutasunera bideratuko ditu. Adibidez, musika tresnak (klabeak edo triangelua) jotzean motrizitate fina landu edo abesti ezberdinak entzuterakoan (intentsitate, abiadura, iraupena...) entzumen musikala garatzen dute, beste gauza askoren artean.

Aurrekoarekin lotura eginez, aipatutako jarduera guztiak hainbat gaitasun lantzeko baliagarriak izan dira, hala nola, musika tresna ezberdinekin trebatu, erritmoa jarraitu, arreta, koordinazioa eta entzumena lantzeko. Horretaz gain, motrizitate fina garatzeko ere oso aberasgarria dela esan daiteke, musika tresna ezberdinen erabilerari esker, adibidez, zotz txinatarrak edo triangeluak atzamarrekin hartzerakoan. Aipatutakoarekin batera, argi eta garbi dago, honelako jarduerak haurren garapenean asko laguntzen dutela, baina, behatutakoaren arabera, saioak oso laburrak edo eskasak izan dira, beraz, haurrek musika tresnekin trebatzeko oso denbora gutxi izan dute. Saio gehienetan edo kasuan kasu, musika saioen tarte gehiena dantzei edo abestiei zuzenduta dago. Behatu izan ahal dudanaren

arabera, gelan hogeita bi haur izanda, batzuetan nahiko zaila izaten da haur guztien kontrola izatea, guztiek elkarrekin musika tresna jotzen duten bakoitzean. Horregatik, gure helburu musikala musika tresnak lantzen ditugunean, musika tresnekiko hurbiltze esperientzia bat bizitzea izan behar da eta ez ekoizpen musikal antolatua izatea.

Jarraituz, irakasleak hurrei abestiak irakasteko modua egoera guztietan berdina izan da, hau da, irudi eta mugimenduak erabiltzen ditu hurrek mugimendu eta irudien arteko lotura egiteko. Lotura horien bitartez, jasotako informazio guztiaren bidez ikasitakoa gogoratzeko ahalmena erakusten dute. Kasu askotan, nahiz eta abestien letra ez gogoratu edo hitzak asmatu, melodia bera jarraitzen dute asmatutako hitzekin, baina, betiere ikasitako mugimendu guztiak eginez.

Modu horretan, behaketa honen bitartez hurrek gaitasun ezberdinak abestien bitartez garatzen dituztela esan dezakegu, hala nola, memoria, arreta, entzumena, hizkuntza etab. Horien artean kontzentrazioa ere agertzen da eta honek, hurrek abestiak eta mugimenduak uztartzeko aukera ematen die. Mugimenduek ere motrizitatean asko laguntzen dute, abesti batzuetan mugimendu txikiak dira eta beste batzuetan berriz, gorputz osoa lantzen dutenak, hau dantzetara bideratuta egon daiteke. Oso interesgarria iruditu zaidan puntu bat, oso isilak edo asko hitz egiten ez duten haurren jarrera musikarekiko izan da. Haur hauek abestiak abesterakoan, oso gogotsu egiten duten, euren bizipenak eta sentimenduak bistan utziz. Honela, hurrek emozio ezberdinak bizitzera eta gainerako hurrekiko sozializazioan asko lagundu du. Modu honetan, haurra bigarren hizkuntzan eta bere fonetikan trebatzen hasiko da, entzumen musikala, intonazioa eta garapen intelektuala kontuan hartuz, betiere, ingurugiro positibo eta aktibo baten presentzia izanik.

Mugimenduekin jarraituz, ikusi ahal den moduan, dantzak asko errepikatzen diren jarduerak dira. Horretaz gain, jarduera hauek nahiko gidatuak izaten dira, hau da, irakasleak hurrei dantza zehatz bat irakasten die. Honen bitartez, haurren koordinazioa, mugimendua, psikomotrizitatea etab garatu egiten da, haiek ondo pasatzen duten bitartean. Honekin batera, haurren parte hartzea kontuan izanda, esan beharra dago asko disfrutatzen dituzten jarduerak direla, hurrek mugimendua eta musika oso gustuko dutelako. Orokorrean, gorputzaren adierazpenaren bidez, sentimendu positiboak adierazten dituzte, hala nola, poztasuna edo alaitasuna. Horretaz gain, koordinazioari dagokionez, gauza edo puntu zehatz batzuk aipatzekoak dira, hain zuzen ere, birak edozein aldeetara ematea edo azkarregi edo geldoegi joatea, hau da, erritmoa jarraitu ezinean.

Lanaren helburuak bete direlarik konprobatu izan ahal den moduan, praktikatik abiatuta, bost bloke-soinuaren parametroen egitura hori erabiliz, musika hezkuntza osotua ematen da eta curriculumaren edukiak lantzen dira modu antolatuan. Horretarako, taula jarduera bat sortu da, non 5 blokeak eta soinuaren ezaugarriak gurutzatzen diren. Taularen bidez, esan bezala, curriculumaren edukiak lantzen ditu, musika hezkuntza eta entzumena nagusituz. Gainerakoak, adibidez, musika tresnak jotzea edo dantzak presentzia txikiagoa dute. Berriz, entzuketa aktiboa lantzeko jarduerak ez dira aurrera eramane.

Horretaz gain, haur hezkuntzako irakaslearen formakuntza musika hezkuntzan duen garrantzia aipatzea ezinbestekoa da. Eskoletan, musika hezkuntzak haurren interesa sustatzeko eta musikarekiko motibazioa pizteko, hasierako eta funtsezko etapa osatzen duela kontuan hartuta, irakasleek jasotzen duten prestakuntza profesionala oso garrantzitsua eta ezinbestekoa da. Sarritan haurren interesa eta motibazioa modu teoriko batean aipatzen dugu eta hori, behaketaren bidez konprobatzeko aukera egon da. Kasu honetan, lehen hezkuntzako espezialista haur hezkuntzako saioetan sartzen ari da, haur hezkuntzako haurrei saioak ematen. Honekin, haur hezkuntza graduan jasotzen den musika formakuntza kalitatezkoa izan dadin oso garrantzitsua da.

Egia da, hala ere, haur hezkuntzako haurrek musika saio bakarra dutela, hain zuzen ere, berrogeita bost minutukoa. Izan ere, arratsaldetan izaten da, honek hainbat ondorio ezberdin ekartzen ditu, hala nola, haurrak nekatuta egotea, kasurik ez egitea, jolasteko gogoekin egotea, logurea izatea etab. Hori erakusteko, aipa dezagun, haurrentzako ordutegia nahiko desegokia izan dela, adibidez, musika saio bakarra izatea eta arratsaldeko orduetan. Horretaz gain, musika saioak beste gela batean ematen direnez, gela horretara sartzeko orduan, aulkietara igo, birak eman, korrika egiten dute etab. Honen abiapuntu nagusia, espazio handia eta egunerokotasunetik aldetzen zituen espazioa zen.

Era berean, azterketa egin den bitartean oztopo batzuk aurkitu ditut, hain zuzen ere, aurreko lerroetan aipatu bezala, praktiketako mintegiak. Saio batzuetako behaketak ez direla aurrera eramane, beraz, jaso izan ahal ditudan datuak ez dira bere osotasunean egiaztatu. Mintegietaz gain, arazo teknikoak ere egon ziren, hain zuzen ere, musika gelako ordenagailua aldatu behar zuten, beraz, ezin izan genuen musika saioa aurrera eramane. Hala ere, esan dezakegu oztopo hauek nahiko ondo gainditu ahal izan ditudala tutorearen laguntzaz eta ez direla eragozpen gainditu ezinak izan.

Haur hezkuntzako musika saioei eskainitako denbora oso murrizta izan da, hain zuzen ere, astean behin berrogeita bost minutuko saio bakarra dagoelako. Musika saio

bezala gutxien lantzen den arloa dela, hain zuzen ere, psikomotrizitate edo atzerriko hizkuntzaren atzetik. Behaketa honen bidez lortutako emaitzak kontuan izanik, argi eta garbi dago, musikak haurren garapenean asko laguntzen duela eta bere presentzia askoz nabariagoa izan beharko litzatekeela. Esan beharra dago, gehienetan musika arloa edo saioa alde batera usten dela, orokorrean beste arloetan baino gutxiago ikasten delako eta gainerakoak askoz garrantzitsuagoak direlako. Honekin lotuta dago, Kabalevskyk (1988, Bernalek, 2001 aipatuta) aipatzen duen moduan, “musikaren helburu nagusia haurrek musika (arte guztiak bezala) dibertigarria, osagarria eta apaingarria ez direla ulertzea da, baizik eta bizitzaren zati garrantzitsu bat da, bai bizitza orokorrean bai pertsona bakoitzaren bizitzan” (5. or.).

8. Hobekuntza proposamenak

Aurkitutako oztopoak kontuan hartuta, behaketa sistematikoa baliagarria izan da gaur egungo musika saioen egituraketa ikusteko, hau da, gelan egiten diren jarduera ezberdinak. Horretaz gain, jarduera bakoitzaren zer, nola eta zertarako galderei ere erantzuna eman zaie. Galdera hauen bitartez, lortutako gaitasunak, metodologia eta zeregina zein den ikusi ahal izan da. Baina, haurren parte hartzearen atala kontuan hartzen badugu, hutsune bat aurki dezakegu. Hutsune horretan, haurren jarrera jardueren aurrean nolakoa den ikusteko baliagarria izan da. Hala eta guztiz ere, saio batzuetako haurren parte hartzearen atala kontuan izanik, zeharkako modu batean behaketa aurrera eraman da, betiere, datuen osotasuna lortu gabe, soilik edukitako datuak kontuan hartuz.

Horretaz gain denborari erreparatuz gero, astean zehar musika jarduera/saio gehiago egitea edo musika gelaren egunerokotasunean barneratzea, kasu honetan, saio bereziak egin behar ez izateko, etorkizunerako posible izan daitekeen hobekuntzak izan daitezke.

Badaude adierazpenarekin lotutako alderdiak gehiago landu zitezkeenak, hala nola interpretazioa bai musika tresnekin bai bere gorputzarekin. Bien arteko lanak onura zabalak sortuko lituzke ikasleentzat, eta beste konpetentzia batzuen garapena, psikomotrizitatearen, komunikazioaren, adierazpenen eta abarren bidez. Adibidez, talde txikiagoetan lan egiteko aukera izanez gero, bai musika tresnekin bai gorputzarekin, esperientzia aberasgarriagoa izateko aukera sortuko litzateke. Modu berean, musika tresnei denbora gehiago eskaintzeko aukera sortuko litzateke.

Entzuketa aktiboaz hitz egiten dugularik, esan beharra dago, ez dela modu zuzenean lantzen, baizik eta, jarduera guztietan entzuketa zeharka izaten ohi da. Beraz, entzuketa aktiboa sustatzeko jarduerak egitea edo proposatzea oso aberasgarria izan daiteke, adibidez, musikogramen erabileraren bidez.

Amaierara helduta, behaketa luzatzea oso interesgarria izan daiteke, ulertzen dugu hau GRAL bat dela eta praktiketako epea erabili dela, baina ikusita honen epe laburrean lortu ahal diren emaitzak, zeinen interesgarria litzateke behaketa hau urte osoan zehar egin ahal izatea, eta askoz gehiago urte batzuetan zehar, kasuan kasu, ikasgela honetako haurren garapena behatu eta aztertu ahal izateko, adibidez, haur hezkuntzako etapa osoan zehar.

9. Erreferentziak

237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria.

Arguedas Quesada, C. (2004). La expresión musical y el currículo escolar. *Educación*, 28.

Aronoff, F.W. (1974). *La música y el niño pequeño*. Buenos Aires: Ricordi Americana.

Bandura, A. (1986). *Los fundamentos sociales del pensamiento y acción*. New York: Prentice Hall.

Barbarroja, M. J. (2007ko urtarrilean). La música en Educación Infantil. *Innovación y experiencias educativas*, 14, 1-14.

Barrena, N. (2016). Secuenciación de contenidos de música en Educación Infantil: el currículo del País Vasco. *Aula virtual: contenidos y elementos*(36-47. or.). Madril: McGraw Hill Education

Batlle Rodríguez, J. (2017). La observación de clases y nuestro desarrollo profesional como docentes de ELE. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.unibarcelona.com/es/actualidad/noticias/la-observacion-de-clases-y-nuestro-desarrollo-profesional-como-docentes-de-ele>

Bernal Vázquez, J. eta Calvo, M. L. (1997). *Didáctica de la música en la educación infantil*. Granada: berezko argitalpena.

Bernal Vázquez, J. (1999). La formación musical del maestro especialista en educación infantil [bertsio elektronikoa]. *Revista Eufonía* 15. Webgune honetatik berreskuratua: <http://files.musicainfantil.webnode.com/2000000144401d44fbb/tema1%20art%C3%ADculo1.pdf>

Bernal Vázquez, J. (2003). La influencia de la familia en el desarrollo de la musicalidad. *Actas du VIIIe Congrès de L'AIFREF*, 1-7.

Bruner, J. (2001). *Desarrollo cognitivo y educación*. Madril: Morata.

- Caballero, E., Cocera, T., Gómez, S., eta Puentes, A. (2010). La escuela nueva, María Montessori y Decroly. Webgune honetatik berreskuratua: <https://laescuelanueva-magisterio.blogia.com/2010/121902-la-escuela-nueva-maria-montessori-y-decroly.php>
- Campbell, D. (2001). *El efecto Mozart para niños*. Bartzelona: Urano.
- Caprav, A. (2003). *Creciendo con música*. Buenos Aires: Agedit.
- Cartón, C. y Gallardo, C. (1993). *Educación Musical: método Kodály*. Valladolid: Castilla Ediciones.
- Carril, A. (1986). *De generación en generación*. Junta de Castilla y León.
- Cremades, R., García-Gil, D., Lizaso, B., Morales, A., del Olmo, M^aJ., Román, M., Susaeta, I., eta Toboso, S. (2017). *Desarrollo de la expresión musical en educación infantil [bertsio digitala]*. Madril: Paraninfo.
- Decreto 12/2009, de 20 de enero, por el que se establece el currículo de la Educación Infantil y se implantan las enseñanzas en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Boletín Oficial del País Vasco 30 de enero 2009; 21:1-41.
- Díaz Gamba, W., Liliana Díaz, M. eta Morales Bopp, R. (2014). La música como recurso pedagógico en la edad preescolar. *Infancias Imágenes*, 13, 102-108. Webgune honetatik berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4997162>
- Díaz, M. y Giráldez, A. (2007). *Aportaciones teóricas y metodológicas a la educación musical*. Bartzelona: Graó.
- Díaz Gómez, M. (2005ko otsailean). La educación musical en la Escuela y el Espacio Europeo de Educación Superior. *Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 23-37.
- García, M. (2013). Aristóteles y la educación. In *iHistoriArte*. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.ihistoriarte.com/2013/05/aristoteles-y-la-educacion/>

- Gértrudix Barrio, F. eta Gértrudix Barrio, M. (2011). *Percepción y expresión musical: Un modelo de planificación didáctica en el grado de magisterio de ed. infantil de la UCLM para la enseñanza de la música*. Cuenca: Universidad de Castilla La Mancha.
- Gervilla, A. (1992). *Dinamizar y Educar*. Madrid: Dykinson.
- Gimeno. J. (1982). La formación del Profesorado de Universidad. Las Escuelas Universitarias de formación del Profesorado de EGB. *Educación*, 269, 77-99.
- Gómez Ortega, A. M. (2014). Desarrollo y Evaluación de un Programa de Iniciación a la Danza en Educación Infantil. [Gradu Amaierako Lana]. Universidad de Valladolid.
- González, M. E. (1974). *Didáctica de la música*. Buenos Aires: Kapelusz.
- Hemsey de Gainza, V. (1964): *La iniciación musical del niño*. Buenos Aires: Ricordi.
- Hernández, J. R., Hernández, J. A., De Moya, M del V. (2011). Las bandas sonoras como base de la audición activa: Experiencias educativas para el desarrollo musical infantil. *Revista De La Facultad De Educación De Albacete*, (26).
- Herrero Nivelá, M. L. (1997). La importancia de observación en el proceso educativo. *Revista Electrónica Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 1 (0). Webgune honetatik berreskuratua: <file:///C:/Users/oscar/Downloads/Dialnet-LaImportanciaDeLaObservacionEnElProcesoEducativo-2789646.pdf>
- Imbernón, F. (1998). *La formación y desarrollo profesional del profesorado. Hacia una nueva cultura profesional*. Bartzelona, Graó.
- Juntunen, M. L. (2004). *Embodiment in Dalcroze Eurhythmics*. Cambridge University Press.
- LaCárcel Moreno, J. (1995). *Psicología de la música y educación musical*. Madrid: Aprendizaje Visor.
- Lehmann, P.R. (1993). Panorama de la Educación Musical en el mundo. En *La Educación Musical frente al futuro*. Buenos Aires. Guadalupe, 13-23.

- Lorete, R. (1980). *Expresión musical en preescolar y ciclo preparatorio*. Madrid: Narcea.
- Marcelo, C. (1994). *Formación del profesorado para el cambio educativo*. Barcelona: PPU.
